

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Asteartea, 2012ko uztailearen 10a. IX. urtea. 2.381. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



A. BELAUNZARAN

«Tolosarren interesak defendatzeko» eskatu dio EAJk udalari

Zinegotzi jeltzaleek gardentasuna eskatu diote Bilduk eta Aralarrek osatzen duten gobernuari **02**

Leitzako Bengoetxeak irabazi du lau t'erdiko San Fermin torneo

Juan Martinez de Irujo izan zuen aurkari eta 22-12 gailentzea lortu zuen; bigarren urtez irabazi du **06**

Tolosako Gazte Topaguneko ekitaldiek ez dute etenik **03**

→ **Berrobik ez du Herriarteko txapela jantzi.** Hernani eta Berrobiren artean jokatu zen igandean, Herriarteko Txapelketako finala, eta azkenean, hernaniarrek irabazi zuten. Berrobin, dena den, finala jokatu izana ospatu zuten; 150 bat herritar joan ziren partida ikustera, eta ondoren, udaletxeko balkoira atera ziren gazteak. **07**



TOLOSALDEA

GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA

ingeleraz ere bai

ziklo guztiak euskaraz

Zure etorkizuna ziurtatzen dugu!

MATRIKULA EPEA: Uztailearen 5etik 11ra

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Instalazio elektrikoak eta automatikoak
- Mikroinformatika-sistemak eta sareak
- Mekanizazioa
- Soldadura eta Galdaragintza

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Mekanika
- Informatika
- Administrazio eta Finantzak
- Instalazio Termikoko eta Fluidodun Mantentzea
- Automatizazio eta Robotika industrialia
- Metal eraikuntzak

Gardentasuna eskatu du EAJko udal taldeak azken urteko balorazioa egiterakoan

Bildu-Aralarren agintaldia berrikusi dute Tolosako Udaleko zinegotzi jeltzaleek

Itzea Urkizu Tolosa

Bilduk eta Aralarrek osatutako udal gobernuak agintean daraman legealdiko lehen urtea baloratu du EAJko udal taldeak, eta besteak beste, gardentasuna eskatu dute, batetik, informazio batzordetan, eta, bestetik, parte hartzea kudeatzerakoan.

EAJren ustez, «tolosarren interesak defendatzeko zeregin asko» daude, eta azken urte betean helburu honi begirako lanik ez dela egin nabarmendu dute. Horrela beraz, pasa den ekainetik hona Tolosako Udalak egindako lanaren artean, hamar puntu nabarmendu dituzte jeltzaleek. «Hamar kontu hauetan, hutsuneak daude gure ustez», azaldu du Jokin Azkuek.

Hasteko, udal gobernuak parte hartzea kudeatzeko izan duen modua kritikako du EAJko udal taldeak: «Ez dago irizpide garbirik, kontsulta noiz egingo den edo ez erabakitzeak». Era berean, informazio batzordetan zenbat gai ez direla eztabaidatzen diote, hainbat osoko bilkuretan aipatu izan duten moduan.

Udalaren egoera ekonomikoa ere izan dute hizpide. Azkuek, To-



Peon, Letamendia, Azkue, Carbonell eta Etxeberría, agerraldian. i.u.

losako Udalaren egoera ekonomikoa ez dela kezkatzekoa azpimarratu du: «Egoera, oro har, leku guztietan da txarra, eta udalak zorra baduen arren, epe luzerakoa da».

Garbiketari dagokionez ere, Bilduk eta Aralarrek gauzak ez dituztela ondo egin dio EAJk: «Kale garbiketaren ordenantza aldatu nahi dute, baina oraindik ez dute ezer egin, eta Tolosa gero eta zikinagoa dago». Honen harira, hondakinen bilketaz ere aritu da EAJ, eta bosgarren edukiontzia alde egitearekin batera, Aralarri dei egin dio: «Gai honetan erantzukizuna du, bere botoa erabakiorra da. Legealdi hasie-

ran esandakoa betetzea espero dugu, hau da, erabakiak hartzerakoan tolosarren erdiari bizkarrak ez ematea».

Honez gain, norbalizazioa eta bizikidetzan, inbertsio planean edo turismoaren esparruan behar adina jarduera ez dituztela antolatuta azpimarratu dute jeltzaleek.

Aurrera begira, berriz, beste hamar proposamen egin dituzte EAJko zinegotziek, eta, besteak beste, enplegua sustatzeko plana, bizikidetzarako oinarrizko testua adostea eta urte anitzeko plan ekonomikoa nabarmendu dituzte.

● tolosa@hitza.info

Ezkutaketan



Bioaniztasunetik

Jon Ander Galarraga
Biologoa

Munduan beti dago bizidun bat jango duen beste bizidun handiago bat. Basoko sagua oso boteretsua sentituko da lurrean arrastaka topatu duen zizare koitadua jaten. Baina gauzez, hontza zuriak bere hatzparretan harrapatzen duenean, eta *krask* batekin bizkarretzurra apurtu eta oso osorik irensen duenean... Sagu gaixoari amaitu zaizkio handikeriak! *Bizie gorra ek!*

Konturatuko zineten, gurekin elikatzen den animalia handiago bat biziko balitz, ez ginatkeela eroso ibiliko kalean, nolabaiteko neurriak hartu beharko genituzke animalia haragijale baten tripan amaitu nahiko ez bagenu behintzat! Orokorrean bi metodo daude, gu jan nahi gaituen animalia batengandik ihes egiteko. Bata, gizakiak oso ongi egiten dakiena: garrasi eta korri egin, horretarako prestatuta gauda. Gure bihotza topera jarri, birika etengabe puztu eta hustu, muskuluak tente jarri eta ahalik eta distantzia gehien uzten saiatuko gara gure harrapariaren eta gure artean.

Baina badago beste metodo bat, gutxiago nekarazten duena eta harraparia inozo samarra bada, bere engainatzeko baliagarria dena: ezkutetzea. Animalia asko, ezkutaketan maisuak dira. Batzuk txikiak dira eta beren gorpuzte edozein zulotan sartzen dute; sagutxoak adibidez. Zenbat aldiz ikusi dugu sagu bat berea baino hamar aldiz txikiagoa den zulo batetik sartzen?

Ezkutatzeko beste metodo bat ikusezin bihurtzea da. Orokorrean animalia guztien ile, ezkata edo lumen kolorea, bizi diren ingurunearen antzekoa da. Inork ikusi al du belardi batean ahuntza urdin bat? Zapelatz (*Buteo buteo*) bat ikusten duzuenean, bere sabelaldeak kolore argia duela konturatu zarete, eta goiko aldeak, aldi, iluna. Behetik begiratu zereuren antzeko kolorea du eta goitik begiratzen baso eta belardien kolorea; zapelatzak badu, nonbait, goitik erasotzen dion beste hegazti bat.

Demagun egur hil ugari den baso batean gaudela, eguraldia umela dela eta enbor hil bat altxa-

tzen dugula. Azpian sarritan arrabio arrunta (*Salamanca salamandra*) topatzen dugu, eta animalia honek ez du ezkutatzeko asmo handirik, beltza eta hori bizia baita! Arrabio arrunta inozoa dela uste badugu ere, kolore hauek ez dira ezkutatzeko, bere harrapariari mezu bat bidaltzeko da: «Hi, txikito! Nei kozka itten pille sartukoit ahoko zulutik ta jota seko geatuko haiz!». Nahiko arraroa badirudi ere, arrabio arruntek Gipuzkoa sakoneko euskalkian hitz egiten dute.

Animalien munduan, beltza eta horia koloreek, pozoinsua-arriskutsua esan nahi dute, baina zenbait animaliek kolore hauek izan ohi dituzte, pozoin apurrik ez izan arren. Adibidez, sarritan, parilada egiten dugunean, horia eta beltza den intsektu hegalaria bat hurbiltzen da gugana. Liztorra dirudien arren, ez da liztorra, liztor itxura duen eulia da! Nonbait, euli honek urte gutzia ematen du inauterietan.

Hala ere, kolore festa honetan txundigarrienak, matxinsaltoak dira. Badira matxinsalto espezie batzuk, geldirik daudenean berde edo marroi kolorekoak direnak. Geldirik daudenean ia ezinezkoa da beraien atzematea, baina salto egiten dutenean eta hegala zabaltzean, hegal gainean orban gorri bizi bat dute, oso-oso ikusgarria da. Gure begiak kolore bizi horri jarraika doazenean, matxinsaltoak hegala biltzen ditu, gure begiek orban gorria bistatik galzten dute eta matxinsaltoa non erori den ideiarik ez dugula gertatzen gara.

Gauza bera egiten du harkaitz-txoria (*Tichodroma muraria*) deritzon zozoaren antzeko hegazti gris batek. Harkaitz labarretan egiten du habia eta oso ongi ezkutatzeta da bere kolorearekin horma grisetan. Txori honek, ordea, hegala zabaltzean, bizkar alde gorria dauka eta bera erasotzen ari den harraparia kolore honi jarraika joaten da; gutxien espero duenean, harkaitz-txoriak hegala biltzen ditu eta gertueneko harkaitzean geldirik geratzen da, bere harraparia orban gorriaren bila doan bitartean. Animalia desberdinak, baina estrategia bera, txundigarria!

Aste honetan ez ibili ezkutaketan eta etorri lasai Alegiako jaietara. Aurrez, ordea, komeni da ongi informatzea bertako fauna eta flora buruz. Non? www.bioaniztasunetik.comen. Eta zalantzarik balego, idatzi lasai bioaniztasunetik@hotmail.com helbide elektronikora.

Hemendik bi astera, azken artikulua idatziko dugu; ea denboraldiari bukaera borobila ematen diogun. Eta hurrengo denboraldian? Nork daki!

Hauteskundeetarako hautagaiak aurketu dituzte EH Bilduk eta EAJk

I. Urkizu

EH Bildu eta EAJ alderdiek aurkeztu dituzte jada, Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetako hautagaiak, eta hauen artean bada eskualdekorik.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Autoa.** Suzuki Vitara 2000 HDI. 100.000 kilometro dauzka eta oso egoera onean dago. Aukera paregabea! Interesatuak, deitu 649 51 09 41 telefono zenbakira.

EH Bilduko Laura Mintegi lehendakariaren gobernu taldean, Xabier Olano altzotarra izango da ekonomia eta ogasunaren arduraduna. Enpresa zientzietan lizentziatua da, eta ogasun eta finantza publikoetan espezialista. Baliarrainek, ikaztegiak eta Orendainek osatzen zuten Irueuriako Udaleko kontu-hartzailea izan zen 1982 eta 1989. urteen artean, eta Usurbilgu udalean ere aritu zen gero, lan bera burutuz. Gaur egun, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Zuzendaria da iazko uztailez geroztik.

Eusko Alderdi Jeltzalearen Eusko Legebiltzarreko hautagaien artean ere eskualdeko zenbait politikari izango dira, Gipuzkoako ordezkari gisa.

Zerrendako bigarren postuan, Bakartxo Tejeria billabonatarra izango da; Amasa-Villabonako alkate ohia da, eta Eusko Legebiltzarreko lehendakari izateko hautagaia ere bada bera.

Bederatzigarrena, berriz, Asteasuuko Luke Uribe-Etxebarria legebiltzarkidea da, eta Tolosako Felix Urkola Iriarte da hamargarrena. Jokin Bildarratz Sorron Tolosako alkate ohia, berriz, hamabigarren postuan joango da jeltzaleen zerrendan, eta gaur egun Tolosako Udaleko zinegotzia den Olatz Peon Ormazabal hogeigarrena izango da.

Azkenik, Maria Angeles Lazkano Larrañaga zizurkilgo alkate ohia 29. postuan izango da EAJren legebiltzarreko zerrendan.

Mujikaren aldeko elkarretaratzean liskarra izan da

Juan Mari Mujikaren espetxeratzea salatzen ostegunean egin zuten elkarretaratzean Ertzaintza agertu zen

Eredakzioa Amezketa

Frantziako polizia, hilaren 4ean, Juan Mari Mujika iheslari amezketarra atxilotu zuen. Atxilotuta salatzen, Amezketa herrian, hiru eguneko elkarretaratzeak egin dituzte. Ostegunean, ordea, Ertzaintza agertu zela salatu dute herritarrek.

Osteguneko elkarretaratzean 50 lagun inguru elkartu zirela adierazi dute: «Elkarretaratzean, hoguei minutu paseak zirela, bi patruila ertzain etorri ziren eta plaza inguruetan beste zenbait kaleko jantziekin agertu ziren».

Elkarretaratzean zeudenengana gerturatu zen Ertzaintza. «Identifikazioa eskatzen hasi ziren, eta pankartan zegoen norbaiten identifikazioa nahi izan zuten», argitu dute. «Uko egiten aritu ginen eta hazi egin ziren, oldartu. Azkenean, Juan Mari Mujikaren emazteari eskatu zioten espresuki bere identifikazioa. Honek zergatik galdetzean, Juan



Atxilotuta salatzen 50 lagun elkartu ziren, Amezketako plazan. HITZA

Mariren argakia zeramalako eta pankartan dagoelako esan zioten». Elkarretaratzearen buru zela gaineratu ziotela ere kontatu dute. Identifikatzea beste aukerarik ez zuela izan argitu dute, eta elkarretaratzean zeuden kideen eta ertzainen artean hitzeko aurrez aurrekoak eman zirela ekarri dute gogora. «Tentsio uneak bizitu genituen», gaineratu dute.

Juan Mariren egoeraz informatu ahal izateko, frontoi barrura sartu ziren, eta bertan, hurrengo egunean ere elkarretaratzea egitea erabaki zuten bi gaiak salatzen: «Mujikaren egoera eta ertzainen jarrera».

Ostiraletik igandera Soriara joango dira Oargi mendi taldekoak

Izena emateko epea bihar bukatuko da; Urbion mendia eta Neilako lakuak ezagutuko dituzte

E. Maiz Tolosa

Oargi mendi taldeak mendi irteera antolatuko du astebururako. Tolosatik hilaren 13an aterako dira Soriara joateko, eta hilaren 15ean izango da itzulera.

Ostiralean, Tolosatik irten eta Vinuesa herrira joango dira. Hilaren 14ean, larunbatean, Laguna

Negratik hasita Urbion mendia igoko dute. 700 metro inguruko gorabehera izango du, eta 4-5 orduko ibilbidea izango da. Igandean, Neilako lakuetara joango dira. Bost ordu inguruko ibilaldia prestatu dute.

Asteburuan mendiaz gozatu nahi duenak izena 688 698 642 telefono zenbakira deituz edo info@oargi.org helbide elektronikoki idatziz eman beharko du. Apuntatzeko azken eguna, bihar, hilak 11 izango da.

Izena ematerakoan 20 euro arduratu beharko dira Euskadiko Kutzako 3035 0028 11 0281141038 kontu korronte zenbakian.

Enpresei zuzendutako hiru programa izango dira

Lehiberrik irailetik aurrera Ekoscan, Cheque+innova eta Legescan programak martxan jarriko ditu

E. Maiz

Lehiberrik hurrengo hilabetean eskualdeko enpresei zuzendutako hiru programa martxan jarriko ditu: Cheque+innova, Legescan eta Ekoscan izango dira.

Cheque+innova programa enpresetan inplantazio eta lehiakor-tasunean eragin azkarreko ekintzak sustatzeko ekimena izango da. Hiru langiletik gorako enpresentzat izango da, eta izena irailaren 7a bitartean eman daiteke.

Legescan programa ingurugiro arloko lege betebeharrak nola bete ezagutzeko, ebaluatzen eta antolatzen izango da. Ekoscan programak enpresetan emaitzak zenbatu eta kostuak aurrezteko lortzen duen ingurugiro azterketa da. Azken bi programak hauek, Lehiberriko kideentzat doan izango dira. Gainerakoek, ordea, 250 euro ordaindu beharko dituzte. Apataerreak industriagunekoak dira.

Informazio gehiago nahi duenak edo izena eman nahi duenak Tolosaldea Garatzeneko Enpresa Sailarekin jarri beharko du harremanetan. 943 65 45 01 telefono zenbakira deituz edota enpresa@tolosaldea.net helbide elektronikoki idatziz.

● tolosaldean@hitza.info

Oporrak lagunekin

Gazte Topaguneak uztailerako hainbat ekitaldi antolatu du; gaur bideo grabaketa egingo dute

Eneritz Maiz Tolosa

Tolosako Gazte Topaguneak uda egunetan ondo pasatzeko moduko egitaraua prestatzen du. Pasa den astean eman zioten hasiera prestatutako egitarauari, eta aste honetan ere, gauza ugari dituzte parte hartzeko. Uda oporrak lagunekin pasatzeko aukera eskaintzen die Uda Gaztea ekimenak. Esaterako, atzo, eskulanak izan zituzten, eta erlojuak egin zituzten bertara gerturatu ziren gazteek.

Bihar, berriz, *Tolosako Txokotan* bideoaren grabaketa egingo dute. Asteazkenak jolasak egiteko aukera eskainiko die, esku jokoak izango dituzte Trianguloa plazan. Aste honetako azken ekitaldia ostegunean izango da. Surf ikastarora joanez taula gainen ibiltzen ikasteko aukera izango dute.

Tolosako Gazte Topagunearen Uda Gaztea egitarauaren azken astea hurrengo astea izango da. Astelehenean ostegunera izango da, astelehenean fimo eta feltroarekin egingo dituzte eskulanak. Asteartean euskal jolasez jolasteko aukera izango dute, eta asteazkenean askaria egingo dute. Azken egunean, Larraitza egingo dute irteera eta bertan dagoen Txindokiko Itzala parkean ibiltzeko aukera izango dute zuhaitzetik zuhaitzera.

Tolosako Gazte Topaguneak atek zabalik izango ditu egun guztietan. Parte hartu nahi duenak, bertara gerturatzea baino ez du.



Makillaje ikastaroa egin izan dute. IGL

↓ Tolosako Gazte Topagunearen Uda Gaztea

EGITARAUA

- **Uztailak 10, gaur.** *Tolosako txokotan* bideoaren grabaketa egingo da.
- **Uztailak 11, asteazkena.** Esku jokoak izango dira, Trianguloa plazan.
- **Uztailak 12, osteguna.** Surf ikastaroa izango da.
- **Uztailak 16, astelehena.** Es-

kulanak izango dira: fimo eta feltroa.

- **Uztailak 17, asteartea.** Euskal jolasez gozatzeko aukera izango dute, Trianguloa plazan.
- **Uztailak 18, asteazkena.** Askaria izango da.
- **Uztailak 19, osteguna.** Kirol abentura egiteko aukera izango da, Larraitzen dagoen Txindokiko Itzala parkean.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Amezketak



ARALARKO MEATEGIA, GERTUTIK

Txindokio Itzalak antolatuta, 40 pertsonatik gora bildu ziren Aralarren dauden Arri-
tzagako meategietara egindako bisitan. Besteak beste, Jesus Iñurri meategietara-
ren azalpenekin, historia, urekin eta XX. mendera arte ustatu diren meategien berri
izan zuten bisitan parte hartu zutenek.

Tolosa



HARRERA ONA, BESTE BEHIN

Km 0 eta Tolosako Azokak ekimenaren bidez, herritarnek plateretxo berri bat dasta-
tzeko aukera izan zuten. 19:30 tabernako Aitziber Jauregi eta Ibon Leundak prestatu
zuten eta harrera ona izan zuen. Kalabazina izan zen produktu nagusia, eta moka-
duak beste produktu hauak ere bazituen: lakon espagietatik ondoko porrekin egindako
sallisarekin buztina eta litzazabalgaz gaztaren laskein bukatua.

Tolosa-Ibarra



**ERRETENGIBEL
UDAL BAZKUNAK
SALGAI DITU:**

- Rondilla kalea, 3. zenbakian 4 etxebizitza
tasatu eta merkataritzako 160 m²-ko lokal bat.
- Plaza Berria, 1. zenbakian etxebizitza bat.

Informazio
gehigarriko
ostu
618 77 23 54
telefono
zenbakira.

RAPA NUIKOEK AZTARNA UTZI DUTE

Ibarra antolatuta duten Kulturantze egitasmoari
amalera eman zioten ostiral gauetan Tolosan
egindako emanaldiarekin. Rapa Nuiko Haka Ara
Hiru taldeak Alun dantza taldeko gaztekin
 batera eman zuten kuskuzuna. Larunbatean Iba-
rrako herriari agur esateko orduko iritsi zen, eta

ekintza berezi batekin biotariak beraien aztarna
betrako herriari utzi nahi izan diote. Ibai ertzean,
hainbat taldek dituzten muralen alboan beraien
murala egin zuten. Rapa Nuiko poesia baten eus-
karazko itzulpena bi herrien arteko elkartrukaren
testigu bihurtuz.

Abaltzisketa



FAMILIENTZAKO IBILALDI GIDATUA

Gibuzokoako Parkeko Sarea Fundazioak antolatuta zuten jaruleraren barnean, Larraitz-
Abaltzisketa-Larraitz ibilaldia egin zuten hainbat familiak igandean. Ibilaldi gidatua
egin zuten eta haurrek jolasak egiteko aukera izan zuten.

Tolosa



TXINTXARRIKOAK SANTA KLARAN

Pasa den larunbatean Alegiako Txintxarri abesbatzak Tolosako Santa Klara komu-
nitan mezu abestu zuten. Besteak beste, Pedro Jose Peñagarikano frantsiskotarren
Euskalduen Meza osorik abestu zuten. Klararren ordena Tolosara etorri zela
400 urte betetzen dira aurtien eta urtemuga horren ospakizunen barnean sartu zen
larunbateko abestutako meza.



Puzgarriak, buruhandiak eta zezen gupildunak izan zituzten, larunbatean, Tolosako Alde Zaharreko sanferminetan...



Lurreamendi suzoko jaietan hainbat jarduerak egin zuten: futbola, krosa, Larraín dantza, afora, haurrentzako zezen gupildunak eta jolasak.

Gustura, sanferminetan eta lurreamendiko jaietan

Larraín dantza eta emakumeentzako krosa izan dira Tolosako lurreamendiko festetan berrikuntzak

Imanol García Landa Iritza

Zurigorritz jantzi da Tolosa aste-
buruan. Izan ere, Alde Zaharreko
sanferminetako krosa izan da
suizoko festak ospatu dituzte, eta
hor ere zurigorritz jantzi dira.

Oro har, balantze ona egin dute
lurreamendiko bizilagunen feste-
tan bizilagunak. Haskira hitoan
ostirala emaltzen zuten festarako,
eta egun ostegun ihurtzea eta la-
runbata ere egitarauan sartu di-
tuzte. «Bizilagunen artean enag-
tzeo eta auzoan giroa sortzeo

hasi ginen festak antolatzen»,
azaldu du Pablo Lakuntzak.
«Haurrei zuzendutako jarduerak
egiten hasi ginen ostiralean, eta
ondoren afora. Gero, ostegun
arratsaldean futbol partidak an-
tolatzen hasi ginen, eta orain, la-
runbatean ere, afaldu aurretik,
jarduerak jarri ditugu».

Helduen futbol partidak giro-
nekoek parte hartzen dute. «Au-
zoan bizilagunen artean sortu-
ko lehia batetik atera zen partida
egitea», azaldu du Lakun-
tzak. «Gero, emakumezkoek ere
zerbait antolatu nahi zuten be-
rrentzako, eta azkeneko krosa
egitea pentsatu zene». Ez da izan
nahi bezainbeste parte har-
tza, baina datorren urtean erre-
pikatuko ditela azaldu dute lu-
rreemendikoek.

Aurtengo festetako beste berri-

kuntza Larraín dantzarena izan
da. «Bederatzi bikote dantza ikas-
ten ari gara eta, ostiralean, afal-
du aurretik egin genuen saioa»,
azaldu du Lakuntzak. «Oso gu-
tura hartu dute jarduera berria
eta datorren urtean ere berriro
egin nahi dugu. Ordurako, balite-
ke jende gehiago animatzea».

Uda honetan zatoz
HITZaren itzalera

Elkarrekin
irakur eta hitz egiteko
gaitasuna lortzeko
libroa

1000
1000
1000
1000

hitz



Oinatz Bengoetxea Labritiko partidaren ondoren, lau t'erdiko txapela buruan duela. IDOIA ZABALETA-ARGAZKI/PRESS

Oinatz Bengoetxeak irabazi du lau t'erdiko San Fermin txapelketa

Aimar Olaizola gaingitu ostean, azken partidari, Juan Martinez de Irujo hamabian utzi du leitzarrik

A. Imaz Leizta

Bengoetxea VI.a jaun eta jabe izan da San Ferminetako lau t'erdiko txapelketan. Leitzarrik bigarren urtez jarraian, Iruñeko jaietako txapela jantzi du, kaiolan onenen artean dagoela erakutsiz. Finala larunbatean jokatu zuen Oinatz Bengoetxeak, Juan Marti-

nez de Irujoren aurka, eta 22-12 irabazi zuen. Partida bizia eta erritmo handikoa jokatu zuten bi pilotariek: Irujo defentsan galzak nahiko bete lan, eta Bengoetxea VI.a erasoan, eroso. Hala eta guztiz ere, finaleko lehen abantailak Irujok lortu zituen: 1-2 eta 2-4. Hortik aurrera, leitzarrik hartu zuen aurrea, eta 22ra iritsi arte, ez zion atsedetik eman aurkariari.

Aimar Olaizola eta Juan Martinez de Irujo utzi ditu kalean Oinatz Bengoetxeak, txapela jantzi aurretik. Bi pilotari horien mailak agerian uzten du txapel honek duen garrantzia.

Partidaren amaieran, zorion-

tsu zegoen Oinatz Bengoetxea: «Jokoarekin asmatu egin dudala uste dut. Berak luzeago jokatu nahi zuen, baina aurreratu eta erritmo bizia jarri diot jokoari. Gauzak ongi atera zaizkit, eta final oso on bat jokatu dudala uste dut».

Erritmo bizi horren inguruan galdetuta, erraza ez zela onartu zuen: «Kanpotik agian erraza dirudi, baina izugarriko erritmoan jokatu dugu, eta maila horretan gauzak ongi ateratzea benetan zaila da. Jakin banekien horrela jokatu behar nuela, eroso sentitu ez zedin, eta azkenean hori lortu dudala uste dut».

Aitor Ormazabal laugarren gelditu da Espainiako Txapelketan

Arrantzale gazteak maila goreneko lehiari hartzeko aukera izango du lortutako emaitzengatik

A. Imaz Villabona

Espainiako XVI. Arrantza Txapelketak ekainaren azken asteburuan jokatu ziren Araxes eta Leitzarri ibaietan, gazteen mailan. Bederatzi autonomia erkidegoko ordezkariak egon ziren bertan,

eta sailkapen orokorrean Euskadi gelditu zen lehen postuan. Norbanakoei dagokienez, 44 arrantzale gazte aritu ziren lehiari. Aitor Ormazabal Zubeldia billabonatarra laugarren sailkatu zen. Postu honekin, maila goreneko lehiari aritzeko aukera izango du Ormazabalek, baita mundu mailan kompetitzeko ere, beti ere bide honetatik jarraitzen badu. Laugarren postua ezaguna du billabonatarrek, Gipuzkoakoan eta Euskadikoan ere horrela gelditu baita. Billabonatarra Andoaingo Ontza Elkartearen kidea da.

Danok Danenako pultsulariak, bikain

A. Imaz

Danok Danenako pultsulariak dominatzen jarraitzen dute. Ekainaren 30ean, halterofiliako Espainiako 17 urte azpikoen txapelketa jokatu zen Xixonen. 58 kiloko mailan, Villabonako Susana

Davilak bigarren postua eskuratu zuen; 63 kilotona, Larraulgo Goretti Amonarrik brontzezko domina lortu zuen, eta 69 kilotona, Asier Gallego izan zen hirugarren postuarekin Zizurkilera itzuli zena. Danok Danenatik guztiak zoriandu nahi izan dituzte.

Tolosa-Getaria Eusko Tren Ligan ariko da

A. Imaz Tolosa

Asteburuko estropadek Eusko Tren Ligako lau taldeak zeintzuk izango diren argitu zuten. Larunbatean Kutxabank bandera jokatu zen, eta igandean, Eusko Label bandera. Lehen estropada Zumaiak irabazi zuen, eta bigarrena

Rianxeirak. Bietan Tolosa-Getaria bigarren postuan sailkatu zen, 17 minutu eta 2 segundoko atzerapenarekin. Bi estropada hauetako lau onenek saria jaso zuten, hau da, Eusko Tren Liga jokatzeko aukera. Tolosa-Getariarekin batera, Zumaiak, Rianxeira eta San Juan ariko dira lehiari.

Transernio Txapelketaren lehen kanporaketak, abian

Lau partida jokatu dituzte Adunak, eta eskualdeko bost bikote aritu dira lehiari, alebini eta infantil mailan

A. Imaz Aduna

Adunako Transernio Pilota Txapelketa larunbatean hasi zen. Lau partida lehiatu ziren, eta kanporaketa moduan jokatzenez, lau bikotek egin dute aurrera.

Lehen partidak alebini mailan jokatu ziren. Usurbilek 2-16 galdu zuen Andoainen aurka. Ondoren, Zizurkilgo Lasa-Gorostidik Aurrera Saiazeko Zugastik Elolaren aurka jokatu zuten. Lehene bikoteak irabazi zuen lehia,



Adunak, larunbatean jokatu ziren lehen kanporaketak. I. GARCIA/LANDA

16-5eko emaitzarekin. Alebini ondoren, infantilen txanda izan zen. Amezetako Zubeldia-Artolak 1-18 galdu zuten Andoaingo pilota eskolako bikotearen aurka. Eguneko azken partida Intxurreko Altuna-Aizpitartek irabazi zu-

ten, 18-9. Aurrera Saiazeko Elola Jauregiaren aurka.

Transernio Txapelketak aurrera jarraituko du asteburu honetan. Partidak larunbatean eta igandean jokatu dira, Adunak, 10:30etik aurrera.

Irudia Tolosa



BERAZUBIKO TXAPELKETA

Tolosa Cfk antolatuta du 44. aldiz Berazubiko Paleta Txapelketa, eta dagoeneko eman diote hasiera. Bederatzi bikote hartu dute parte guztira. Partidak astelehentik ostiralera izango dira, 18:30ean hasita. Finala hilaren 24ean izango da. I. GARCIA

«Berrobik eman digun babesarekin oso pozik gaude»

Hernanik irabazi du bosgarrenez Gipuzkoako Herriarteko Pilota Txapelketa

Iñigo Terradillos Berrobi

Azkenean ez da posible izan. Hernaniarrek jantzi dute, bosgarrenez, Herriarteko txapela. Baina, Berrobin irabazi izan balute bezala ospatu dute. Finalerdietara inoiz ailegatu ez zen talde batentzat finala jokatzeko saria lortzea baita. Baina, jokatzeko hutsetik haratago, berrobitarrek gogor borrokatu zuten, eta irabaztear egon ziren. Azkenean, 2-1eko emaitzarekin gailendu ziren faboritoak.

Donostiako Atano III.a pilotalekukoan jokatu hiru partidetatik lehena nagusitasunez irabazi zuen Berrobik. Zubiria-Erauskin kadeteek 22-2 irabazi zieten Loiarde-Nobleri. Arkaitz Aurkia Berrobiko taldearen arduradunaren esanetan, «erakustaldi han-

dia» egin zuten. «Ez da erraza adin horrekin horrelako partida batean urduri ez jartzea, eta berrobitarrak oso ondo aritu ziren».

Jubenil mailako partida emozio handikoa izan zen. Berrobik lehena irabazi zuen, eta bigarrena irabaziko balu, txapelketa irabaziko luke. Alberdi eta Elustondo 12-6 jarri ziren aurretik, eta bazirudien bide onetik zihola, baina, hernaniarren erantzuna iritsi zen berrobitarren nekearekin batera. «Partidaren amaiera nahiko parekaturik iritsi ginen, eta batak zein besteak irabazi zezakeen, baina azkenean ez zen posible izan», dio Aurkiak.

Nagusien esku

Banakako berdinketarekin, nagusien finalaren esku geratu zen txapelketa. Ojuel eta Gorrotxategi hernaniarren maila nabarmendu du Berrobiko taldearen arduradunak: «Elkarrekin asko jokatu duten pilotariak dira, eta hori nabari da; min handia egin zuten sakez, eta pilota ezkerrean gerturatzuz, eta 10-7 ere joan ginen arren, ezin izan genuen irabazi».



Berrobitar ugari joan ziren Donostiako Atano III.era herritarrei babesa ematera. AGURTZANE BELALINZARAN

Azken partida horrek erabaki zuen txapelketa Hernaniaren alde. Berrobik finala galdu du, eta bigarren postuan geratu arren, «oso pozik» daude pilotariak eta taldeko arduradunak: «Oso txapelketa ona egin dugu, eta zaila izango da horrelako zerbait errepikatzea. Finalera iristeko hiru

herri gaitu behar dira, eta ordezkorik gabe ginela kontuan izanik, oso handia da lortu duguna».

Aurkiak Berrobiko herritarrengandik jaso duten babesa nabarmendu du: «Oso egun polita izan zen herenegungoa. Berrobitik 150 lagun behintzat joan ziren finalera berrobitarrak babestera,

eta hori 600 biztanle baino gutxiago dituen herri batentzat ikusgarria da». Partidaren ostean Berrobira itzuli ziren, eta han harrera egin zieten udaletxean, balkoira irten zirelarik herritarrek agurtzera. Festa borobiltzeko, herritar guztiak sagardotegira joan ziren bazkari legea egitera.

Irudia ◊ Ibarra



NABIGATZAILE ONENARI SARIA

Xabi Fernandez ibartarra eta Iker Martinez hondarribitarra 2011 urteko munduko nabigatzaile onenak dira, Nazioarteko Bela Federazioak bi gipuzkoarrak aukeratu baitzuten pasa den urteko azaroaren 8an eginitako ekitaldian. Bada, egun horretan Volvo Ocean Race proban parte hartzen ari zirenez, ezin izan zuten saria jaso, eta atzo jaso zuten garaikurra, Madrilan. BERNARDO PAZ

Irudia ◊ Tolosa



TOLOSARRAK BIKAIN DONOSTIAN

Donosti Cup futbol txapelketa jokatu berri da Donostian, eta bertan, mundu osotik etorritako 400 taldek hartu dute parte. Eskualdekoak ere tartean ziren, Tolosa CFko jokalariek, kasu, oso maila ona emanez, gainera. Izan ere, G14 mailan txapelundunor izan dira Tolosa CFko neskek. Finala 3-0 galdu zuten Alliance amerikarren aurka. Anoetako zelaian jokatu finalean «izugarri» gozatu zuten tolosarrek. HITZA

**Tosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitateak: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak
SM-ko kideak: **BERTAKO** HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

Agenda

DEIALDIAK

■ **Aduna.** Asvineneak barreteria-pia ikastaroa antolatu du hilaren 14 eta 15erako. Aitor Navarro da irakaslea, eta ikastaroak 45 euro balio du. Izena emateko 627 98 55 68 telefono zenbakira deitu behar da. Bestetik, antzerki inprobisazio ikastaroa ere antolatu du hilaren 16, 17 eta 18rako. Irakaslea Emmanuelle Thomé izango da, eta 622 86 79 48 telefono zenbakira deitu behar da izena emateko.

ERAKUSKETAK

■ **Alegia.** Mirari Bengoaren margolanak ikusi daitezke, herriko jaia arte, Jubilatuen tabernan.
■ **Tolosa.** Ni Pinotxo naizera-kusketa ikusi daiteke, Topic zen-troan, irailaren 23a arte. Ostira-letan eta larunbatean bisita antzetzuek eskaintzen dituzte.

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. Telefonoa: 943 67 24 38.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esan-ena eta iritzien erantzukizunik.

Irudia Tolosa



5. URTEURRENA OSPATU DU 28 KANALAK

Tolosaldeko telebistak, 28 Kanalak, Tolosako Frontoi jatetxean ospatu zuen 5. urteurrena pasa den ostegun gauean. «28 Kanala duela 5 urte hasi zen emititzen eta ibilbide luze honetan lagungarri izan ditu hainbat udaletxe, kultur eragile eta pertsona, bezero eta abar. Horregatik, hauei guztiei eta ikusentzule guztiei eskerrak eman nahi izan diegu», azaldu dute. Jaian bideoak ikusi ahal izan

ziren, Manent taldeak bi abesti eskaini zituen, eta bukatzeko, Gorrotxategi anaiek bereziki egindako tarta erraldoi bat erakutsiz bukatu zuten (lehen irudia). Ondoren, Frontoi jatetxeko Roberto Ruiz eta Illargiko Mireia Carcelleren eskutik, bertaratutakoak pintxo ugariz gozatu ahal izan zuten (azken irudia). 28 Kanaletik eskerrak eman nahi diete Tolosaldeko biztanle guztiei. HITZA

Agurrak



Zorionak!

Zorionak eta ondo pasa dezagula eguna. Maitasunez, zuen bilobak.



Zorionak!

Janitz Sagastibeltza Bengoetxea (Leitza). Gaur 5 urte.

Urte askoz eta muxu handi bat familia guztiaren partetik.

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●●●● **agurrak**